

Complicidades es un programa mediante el que diferentes personas nos invitan a visitar, a modo de itinerario personal, una selección temática de obras del Museo.

Te invitamos a hacer tu aportación a este itinerario, entregando esta ficha con tus sugerencias de otras obras del Museo que lo pueden completar y tus comentarios sobre las mismas.

Konplizitateak programan, hainbat pertsonak, ibilbide pertsonal moduan, Museoko lanen hautaketa tematiko bat bisitatzeraz gonbidatzen gaituzte.

Ibilbide honetarako ekarpena egitera gonbidatu nahi zaitugu. Horretarako, ibilbidea osa dezaketen Museoko beste lan batzuen iradokizunak eta zure iruzkinak jasotzen dituen fitxa hau eman behar duzu.

CK3

Identificación de obras en las salas /
Lanen identifikazioa aretoetan



Retrato de monja / Mojaren erretratua (1750)

ANTONIO GONZÁLEZ RUIZ

Óleo sobre lienzo / Olioia mihise gainean. 110,5 x 97,5

SALA 3.3 ARETOA

Todo rodea y aquieta a Teresa Antonia. El hábito blanco que le da volumen de pirámide o cono, el sinuoso y tentacular velo negro que la ciñe desde atrás. Las manos sujetan un libro, un misal probablemente, y cierran otro círculo. La evocación o el deseo de movimiento solo pueden sugerirlo los ojos que miran hacia afuera.

Denak biltzen eta geldiarazten du Teresa Antonia. Abitu zuriak, piramide edo kono tankerako bolumena ematen dionak; belo beltz bihurgunetsu eta tentakuludunak, atzetik lotzen duenak. Eskuek liburu bati heltzen diote (meza-liburua dugu segur aski) eta beste zirkulu bat ixten dute. Kanpora begira dauden begiek bakarrik iradoki dezakete mugimenduaren isla edo nahia.



Un viático en el Baztan / Biatikoa Baztanen (1917)

JAVIER CIGA

Óleo sobre lienzo / Olioia mihise gainean. 210,5 x 280 cm.

SALA 3.6 ARETOA

Un triángulo central, el prelado, el monaguillo, el señor, individuos definidos por su función y posición diferenciada y ellas, dos masas laterales, idénticas, intercambiables, el cortejo, el segundo plano. Los verdes de Elbete, su insinuación de espacio y aire quedan lejos y más cuando entre el Viático en casa. Serán casi un fundido a negro.

Hiruki bat erdian, apeza, meza-mutila, jauna, egiteko eta kargu bereziek zehaztutako gizabanakoak eta, gero, emakumeak, aldeetan dauden bi masa, denak berdinak, bata bestearekin ordeztuko modukoak, segizioa, bigarren plano. Elbeteko berdeak, espazioaren eta airearen iradokizuna urrun gelditzen dira; are gehiago biatikoa etxean sartzen denean. Ia-ia beltzean urtuko dira denak.



Bañista en el río / Bainularia ibaian (Década de 1930 / 1930eko hamarkada)

GERARDO ZARAGÜETA

Copia tintas pigmentadas, 2010 / Tinta pigmentatuekin egindako kopia, 2010. 36, 5 x 26,5 cm.

SALA 3.6 ARETOA

¡Sácame guapa! Esta postura la he visto en mil revistas. ¿Siempre es tan lento hacer una foto? Hombre, las piedras se me clavan, pero acabamos pronto ¿no? Además es fiesta. Era verano, era joven y sonreía en un río que no había sufrido los estragos de la industrialización. La década venía turbia, pero todo parecía estar bien.

Goapa atera nazazu, mesedez! Gorputz jarrera hau mila aldizkaritan ikusi dut. Beti al da hain mantsoa argazki bat ateratzea? Gizona!, harriek mina ematen didate; laster bukatuko dugu, ezta? Gainera, jaieguna da. Uda zen, gaztea zen eta irribarre egiten zuen, industrializazioaren hondamena jasan gabeko ibaian. Hamarkada uher eta iluna zetorren, baina dena primeran zegoela zirudien.



Retrato de Genara Murillo / Genara Murilloren erretratua (Década de 1960 / 1960ko hamarkada)

ELENA GOICOECHEA

Óleo sobre lienzo / Olioia mihise gainean. 79 x 69 cm.

SALA 3.6 ARETOA

La procesión va por dentro. La armonía discreta de grises y rosas dorados realza la elegancia y la contención de la modelo. La elegancia de su contención. La luz emana de la cara porque algo arde en el interior. Dan fe los ojos como brasas y los labios sellados y rojos. Es un secreto a voces que calla y que le pesa.

Barruan dago mina. Gris eta arrosa urrekaren harmonia xumeak modeloaren dotorezia eta eutsitasuna indartzen ditu. Haren eutsitasunaren dotorezia. Aurpegitik dator argia, barruan sua dagoelako. Horren berri ematen dute txingarraren tankerako begiek eta ezpain zigilatu gorriek. Denak dakite sekretu hori eta zama handia da berarentzat.

Estamos todas bien

Emakume guztiak ongi gaude

MUSEO DE NAVARRA

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Estamos todas bien

Aunque se ha asociado lo femenino a la naturaleza y lo masculino a la cultura, son precisamente las mujeres pintadas o esculpidas las que aparecen como menos «naturales» en el sentido de menos espontáneas, más contenidas, más pasivas, es decir, altamente afectadas por la cultura, por su medio ideológico y social. Tal vez solo se atenúe esta restricción si las representadas son figuras mitológicas y alegóricas o mujeres consideradas fuera de la norma. Hay dos palabras para acompañar este itinerario. Una, implosión, que sugiere intensidad, conmoción, movimiento interno acompañado de empequeñecimiento. Y otra, confusión. ¿Puede reír igual una mártir que una joven bañista?, ¿qué comparten Eva y las mujeres de Elbeté? ¿Guardan relación estas cuestiones con las autorías no nombradas?, ¿quién fue Catalina de Oscáriz? Preguntas, un camino para encontrar respuestas.

Emakume guztiak ongi gaude

Femeninoa naturarekin eta maskulinoa kulturarekin lotu diren arren, pinturetan edo eskulturetan emakumeak dira, hain zuzen, «natural» agertzen ez direnak, hau da, irudietan ez dira espontaneoak eta bai, aitzitik, gizonak baino neurritsuagoak eta pasiboagoak, kulturaren eta ingurune ideologiko eta sozialaren eragin handia nabari zaielarik. Murrizketa hau, beharbada, irudi femenino jakin batzuetan arintzen da bakarrik: figura mitologiko eta alegorikoetan edo arauetatik landako emakumeen irudikapenetan. Bi hitzek laguntzen dute ibilbide honetan. Bata «inplosio» hitza da, eta horrek iradokitzen du intentsitatea, zirrara, txikiago bihurtzearekin lotutako barne mugimendua. Eta bestea, berriz, «nahaste». Posible da martiri batek eta neska gazte bainulari batek berdin egitea barre? Zer berdintasun dute Ebak eta Elbeteko emakumeek? Galdera hauek ba ote dute zerikusirik aipatzen ez diren egiletasunekin? Nor izan zen Katalina Ozkarizkoa? Erantzunak aurkitzeko bidea dira galderak.



MAITE PÉREZ LARUMBE
(Pamplona / Iruña, 1962)

Trabaja como formadora de personas adultas y redactora free-lance. Ha publicado cinco poemarios.

Helduen prestatzailea eta freelance idazlaría da. Bost poema-bilduma argitaratu ditu.

www.maiteperezlarumbe.com



Las artes / Arteak (1957)

FRANCIS BARTOLOZZI / PEDRO LOZANO DE SOTÉS

Técnica mixta sobre lienzo / Teknika mistoa mihise gainean. 162,7 x 212,7 cm.

SALA 1.7 ARETOA

Aquí nos conocemos todos. Así que aunque su nombre, Francis, le proporcionaba un salvoconducto, su lienzo se atribuyó a su marido. Velada o parapetada en una época oscura, el cuadro es una trinchera desde la que manda un mensaje compensatorio: la libertad de la creación, un ámbito donde mujeres sólidas ocupan el espacio, reflexionan, acceden, disponen.

Hemen denok dugu denon berri. Horrela, nahiz eta Francis izenak igarobaimena ematen zion, bere margolana bere senarrari egotzi zioten. Garai ilun batean, ezkutatua edo hesi baten atzean babestua, margolana lubakia da eta handik konpentsaziozko mezua igortzen du: sormenaren askatasuna, emakume sendoek espazioa betetzen duteneko alorra, bertan hausnartzen, xedatzen dute, sartzen dira.



Santa Águeda (segundo tercio del siglo XVI / XVI. mendeko bigarren herena)

RAMÓN OSCÁRIZ

Óleo sobre madera / Olioa zur gainean. 170,6 x 157,5 cm.

SALA 2.11 ARETOA

Águeda, patrona de las mujeres, rechazó a un procónsul y fue mutilada. Antes de morir quemada dijo que vio a San Pedro y que le curó. Aparece feliz durante todo el proceso, desconectada, es otra dimensión. Este cuerpo que he defendido no es mío. No me duele. Estoy bien. No pasa nada. Alegre martirio. Contradicción turbadora.

Ageda, emakumeen zaindaria; prokotsul bat errefusatu zuen eta gorputza ebaki zioten. Sutan erreta hil baino lehen, esan zuen San Pedro agertu eta sendatu egin zuela. Zoriontsu ageri da prozesu osoan, deskonektatuta, beste dimentsio bat da. Defendatu dudana gorputz hau ez da nirea. Ez dut minik sentitzen. Ongi nago. Ez da ezer gertatzen. Martirio alegera. Kontraesan aztoragarria.



Post Nubila Phoebus (1921)

FRUCTUOSO ORDUNA

Bronce / Brontzea. 175 x 95 x 70 cm.

SALA 3.2 ARETOA

La expulsión del Paraíso fija en el imaginario la relación histórica y jerárquica de los cuerpos, la potente expansión de unos y el repliegue subordinado de otros. Frente y perfil. Arriba y abajo. Él se exhibe, ella se recoge y se tapa. No importan los rostros, valen los de cualquiera. ¿Soportaríamos su versión real?

Jainkoak gizakia Paradisutik egozteak gorputzen harreman historikoa eta hierarkia finkatzen ditu imaginarioan: batzuk indartsu zabaltzen dira eta besteak menpekotasunez uzurtzen. Aurrea eta profila. Goia eta behea. Gizonak bere burua erakusten du; emakumea bildu eta estali egiten da. Begitarteek ez dute garrantzirik, guztien aurpegiek balio dute. Jasanen ote genuke horren bertsio erreala?

Mi selección para este itinerario

Ibilbide honetarako nire hautaketa

TÍTULO / IZENBURUA

SALA / ARETOA

COMENTARIO / IRUZKINA